

## APS proiektua: *Bidetxo berriak zabalduz*

---

### Proposamenaren helburu orokorra

Gure ingurua, obra eta ikastetxeak hobetzea, gure ikasleei protagonismoa emanez. "Bidetxo berriak zabalduz" izenburuak helburuaren inguruko pista bat ematen digu, bide berriak zabaldu nahi ditugulako, ditugunak hobetzearekin batera, ingurumena zaintzeaz kontzientziatuz eta gure ingurunean benetako eragina lortuz.

### Ikaskuntza eta zerbitzuaren(leZ-ren) justifikazioa

Ez gara kontziente ingurumenean dugun eraginaz, ezta gure planetaren errealitate kezkarriaz ere. Garrantzitsua da gure ikasleak aldaketaren partaide egitea, dugun errealitatea aztertu ondoren, beraiengandik aterako den aldaketa bat lortu nahi dugu. Garrantzitsua izango da proiektuaren gidari garenok, ikaskuntzan laguntzeaz aparte gure ikasleek bultzatu nahi dituzten proposamenak, aldaketak eta bideak entzutea, beraien parte-hartzea benetakoa eta bihotzetik izan dadin.

### Oinarrizko curriculuma

Helburuak / Ebaluazio-irizpideak:

- Gaur egungo egoera ulertzea, kutsadurari eta kontsumoari dagokionez.
- Hurbileko arazo zehatzak identifikatzea eta irtenbide jasangarriak planteatzea, mundu mailako zein gure inguruko ingurumena zaintzaren alde lan egiten duten erakundeek planteatutako hobekuntzen arabera.
- Ongizate-estatuaren esanahia ezagutzea, eguneroko zerbitzu publikoekin erlazionatuz.
- Garapen Iraunkorreko Helburuak ulertzea eta etorkizunean ekonomiaren eta gizartearen garapenean izango duten garrantzia balioestea, helburu hauek betetzeko ingurunean egiten ari direna aztertuz.

Oinarrizko jakintzak / edukiak:

- Ingurumena zaintzeko eta gizartean inplikatzeko lan egiten duten erakundeen helburuak ezagutzea.
- Helburu horiek eguneroko ekintzetan aplikatzea.
- Gizarteko kontsumo- eta kutsadura-ohiturei buruzko hausnarketa etikoa egitea.
- Ongizate-estatua hobetzeko adierazleak aztertzea.





### Lankidetzako barne-agentek:

Itaka Escolapios

1. JARDUERA		TALDE KOOPERATIBOAK SORTZEA ETA IDEIA ZAPARRADA	
Saio kopurua		2	Arloak Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Tutoretza, Hizkuntza
<b>HELBURUAK</b>		<p>O1. Eskolapioen misioa ezagutzea Itaka-Escolapios-ek dituen proiektuen bidez.</p> <p>O2. Proiektuaren edukiak, helburuak eta faseak ezagutzea," Bidetxo berriak zabalduz"</p> <p>O3. Bizitzaren eguneroko dinamiketan proposatutako ikaskuntzarekiko harremana identifikatzea (Haurren eta GJHren Eskubideen Konbentzioari buruzkoa)</p> <p>O4. Norberaren ikaskuntzarako motibazioa ezagutzea eta hobetzea, aldaketa globala lortzeko tokian egin beharreko ekintzen beharraz kontzientziatuz.</p> <p>O5. IeZ (APS) honetan planteatzen diren jarduerak aurrera eramateko talde heterogeneoak sortzea.</p>	
<b>DESKRIBAPENA</b>		<p><b>Lehen saioa:</b></p> <p>Ikasgelako lehen ekintza IEZ proiektuaren helburuak aurkeztea izango da, ikasleek beraien erronkez eta ikaskuntzez jabetu daitezen, eta horien parte aktibo izatearen beharrez ere jabetu daitezen. Landuko ditugun gaiak eta/edo aurreikusitako jardueren egutegia ere aurkeztuko zaie.</p> <p>Landu beharreko gai nagusia mundu jasangarrian bizitzeko eskubidea izangoenez, garrantzitsua litzateke GJHak (Garapen Jasangarriko Helburuak) zer diren eta nondik sortzen diren azaltzea. Hemen dituzu hasierako aurkezpen honetan lagungarri izan daitezkeen bideo batzuk: <a href="#">Youtube</a></p>  <p>+info : <a href="#">web</a></p> <p>Behin Haurren eskubideak aurkeztu direla, Itaka-escolapiosek dituen proiektuak ezagutzeko ikasleak taldekatu ditugu. Ikerketa hau egiteko, kanpainako informazio-orriak edo bideoak erabiliko ditugu. Proposamen horren bidez, ikasleak misio eskolapioaren errealitate hurbildu nahi ditugu, beren inguruetik hurbil edo urrun.</p> <p><b>Bigarren saioa:</b></p> <p>Aurreko saioan entzundako eta hausnartutako guztia gurera ekartzeko ordua izango da. Horretarako, ikasleek gure ingurunearen benetako egoerari buruz dituzten aurrezagutzak berriki beharko ditugu, abiapuntua zein den eta non lan egin eta gehiago ikertu behar dugun baloratzeko. Lehen elkarrizketa honetan, gaur egun bizi dugun kutsadura eta kontsumo arazo larria azalduko diegu. Aldatzeko eta kontzientziatzeko beharra, gure aletxo jarri eta egungo errealitatea hobetu ahal izateko (pixka bat bada ere), guztion etxea maite dugulako eta zaindu nahi dugulako.</p> <p>Lehen elkarrizketa honen ondoren, proiektuan zehar erabiliko ditugun lan-talde kooperatiboak sortzen hasiko gara.</p> <p>Idea zaparrada bat egingo dugu, <a href="#">iparrorrazaren</a> pentsamendu-errutina erabiliz. "Zer egin dezakegu gure ingurunea hobetzeko?" Bertan, puntu hauek partekatuko ditugu talde kooperatibo txikietan eta ondoren, talde handian:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Jakin behar dudana</b> (ingurumenaren zaintzari buruz, lanean hasi eta aurrera eramateko proposamenak egin ahal izateko).</li> <li>- <b>Hunkitzen nauena</b> (guztiok bizi dugun benetako arazoaren inguruan, elkarte batzuek ematen duten laguntzari buruz, guztion artean gauzak aldatu ahal izateari buruz, gure aletxo emateko gai izateari buruz...)</li> <li>- <b>Kezkatzen nauena</b> (bizi dugun egoeraz)</li> <li>- <b>Iradokizunak edo aukerak</b> (atal honen asmoa da ikasleak proposatzen dituzten ideak tokian tokikoak izatea, ondoren gauzatu ahal izateko eta aldaketa globala lortzeko).</li> </ul>	
<b>EBALUAZIOA</b>		Iparrorrazaren pentsamendu-errutinaren fitxa erabil dezakegu ebaluatzeko.	
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
Interneteko konexioa duen ordenagailua, <a href="#">iparrorrazaren</a> fitxa eta arkatza		Taldea handian, talde txikietan eta banaka.	

JARDUERA 2.		INGURUMENAREN ALDEKO PROFESIONALAK	
<b>Saio kopurua</b>	1	<b>Arloak</b>	Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Tutoretza, Hizkuntza
<b>HELBURUAK</b>	<p>O1. Gizartearen funtzionamendua eta oinarrizko antolaketa tokiko erakunde publiko eta arduradunen bitartez ezagutzea.</p> <p>O2. Gaur egun ingurumena zaintzeko lan egiten duten hainbat elkarte ezagutzea.</p> <p>O3. Erakunde horiek planteatzen dizkiguten arazoei buruz sakontzea eta gogoeta egitea.</p> <p>O4. Haurren eskubideak defendatzeko eta adingabeen babeserako ematen ari diren erantzunak identifikatzea (dauden arazo kezagarriak identifikatu ere).</p> <p>O5. Herritarren bizikidetzak hobetzen laguntzen duten jarrerak garatzea, aurretik aipatutako arazoetarako aldaketa-bide posibleak proposatuz. Bai modu globalean, baita bakoitzaren herrian ere.</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Ikasleak aurreko jardueran sortutako talde kooperatiboetan kokatu ondoren eta talde bakoitzari ingurumena modu global zein lokalean zaintzeko lan egiten duen <b>elkarte</b> edo talde bati buruzko informazioa emateko eskatuko diegu. Informazio hori ordenagailuan bila dezakete, edo nahiago izanez gero, irakasleak aldeztatik prestatutako informazio-orriak bana ditzake, jarduera egiteko behar duten informazioa izan dezaten.</p> <p>Taula <a href="#">hau</a> bete dezakete eta gero ikasgelan aurkeztu, gainerako taldeek ere gure inguruan lan hori egiten duten elkarten berri izan dezaten. Elkarte horien artean, interesgarria litzateke Itaka-escolapios elkartearen sartzeari, gure ingurumenaren aldeko lanaren adibide gisa, tokian tokiko elkarteak dugulako hau. Modu honetan, oso hurbileko adibide baten bitartez gure fundazioak haratago lan egiten duela ikusi ahal izango dute gure ikasleak.</p>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Iparrorrazaren pentsamendu-errutinaren fitxa erabil dezakegu ebaluatzeko.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
Interneteko konexioa duen ordenagailua edo ingurumena zaintzeko lan egiten duten hainbat erakundek egiten dituzten lanei buruzko informazio-kopiak. Erabilgarria izan badaiteke <a href="#">taula</a> hau ere.		Talde kooperatibo txikietan	

3. JARDUERA.		METODO ZIENTIFIKOA	
<b>Saio kopurua</b>	1	<b>Arloak</b>	Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Tutoretza, Hizkuntza
<b>HELBURUAK</b>	<p>O1. Mendan gure aztarnak duen garrantzia esperimintatzea.</p> <p>O2. Metodo zientifikoa ikastea horrek dakartzan elementuekin.</p> <p>O3. Gure jarreraren inguruko gogoeta egitea eta, beharrezkoa izanez gero, aldatzeko beharraz hausnartzea.</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Jarduera hau esperimintaziokoa izango da. Horretarako, metodo zientifikoaren teoria ikusi, hipotesi bat zer den eta zer egiaztatu nahi dugun azalduko diegu. Aurkezten diren esperimintuetako bat praktikara eraman dezakegu (edo biak nahi izan ezker) Proposamen hauek dauden bezala erabiltzeko, egokitu ondoren erabiltzeko , aldatu edo berriak proposatzeko aurkezten ditugu. Ikasgela bakoitzaren errealitatearen arabera libre sentitu nahi duzuen guztia moldatzeko.</p> <p>Talde bakoitzak betetzeko <a href="#">taula</a> :</p> <p>Gure proposamena:</p> <p>1- Zenbat kostatzen zaio mendira joaten garenean batzuetan ahazten zaigun zaborrari desagertzen? (Desagertzen ez dela jakin arren, adin horrekin deskonposizioa edo degradazioa soilik lantzea proposatzen da). Interneten aurki ditzakegun datuak eman diezazkiekegu, hala nola frutak, oro har, 6 hilabete eta 2 urte bitartean behar dituela, erabilitako paper batek urtebete, txikle batek 5 urte, plastikozko poltsa batek 150 urte edo freskagarri lata batek 200 urte.</p> <p>Horretarako, proba egin dezakegu errazago deskonposatu daitekeen zerbaitekin, jarduera denboran ez luzatzeagatik eta zentzua ez galtzeagatik. Sagar baten bihotza, platano azal bat, paper bat eta galleten plastiko bat, adibidez. Utzi lurrez betetako ontzi batean aste batzuetan, eta ikusi emaitza, batzuek eta besteek denboran egiten duten aldaketa.</p> <p>Info gehiago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <a href="https://www2.cruzroja.es/web/ahora/-/cuanto-tardan-en-descomponerse-residuos-mas-comunes">https://www2.cruzroja.es/web/ahora/-/cuanto-tardan-en-descomponerse-residuos-mas-comunes</a></li> <li>- <a href="https://www.ecologiaverde.com/cuanto-tarda-en-degradarse-el-plastico-2693.html">https://www.ecologiaverde.com/cuanto-tarda-en-degradarse-el-plastico-2693.html</a></li> <li>- <a href="https://www.ecologiaverde.com/cuanto-tarda-en-degradarse-el-papel-2395.html">https://www.ecologiaverde.com/cuanto-tarda-en-degradarse-el-papel-2395.html</a></li> </ul> <p>2- Zenbat litro ur galtzen dira 10 segundoz iturri bat irekita uzteagatik? Zenbat litro ur galtzen dira gau batean txorrota batek tantaka egiteagatik? Horretarako, txorrota arrunt bat erabiliz minutu batean 3 litro ur aterako liratekeela kalkulatu beharko dute.</p> <p>Info gehiago:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- <a href="https://www.fundacionaquae.org/agua-grifo-espana-cuanta-consumimos/">https://www.fundacionaquae.org/agua-grifo-espana-cuanta-consumimos/</a></li> </ul>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Metodo zientifikoaren taula erabil dezakegu ebaluatzeko.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
Esperimentu bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren materialak eta lan kooperatiboaren taula		Talde kooperatibo txikietan	

4. JARDUERA.		"CADA OVEJA CON SU PAREJA"	
<b>Saio kopurua</b>	2	<b>Arloak</b>	Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Tutoretza, Hizkuntza
<b>HELBURUAK</b>	O1. Keinu txiki bat gauzatzea, ingurumena zaintzeko ekarpen txiki bat. O2. Birziklapena lantzea. O3. Gure hirian egiten den hondakinen sailkapen-mota aztertzea.		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Ikasgelaren eta ikastetxearen egiten den birziklapena aztertuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, taldean hitz egingo dugu eta gaur egun egiten ditugun puntu positibo eta negatiboak markatuko ditugu.</p> <p>"Cada oveja con su pareja" egitea proposatzen da, oso erraza eta azkarra da ikasleek egoera aldatzeko zerbait egin dutela sentitzeko.</p> <p>2-3-4 ardi aurkeztuko dizkiegu... Ardiak (zentro bakoitzean egiten den birziklapenaren arabera) aldez aurretik kolore ezberdineko kartoieta marraztu edo inprimatuak:</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;">     </div> <p>Horietako bakoitzean edukiontzi horretan egon beharko luketen hondakinak itsatsiko ditugu, gure zentroko edukiontzietatik gertu jar ditzakegu kontzientzia-neurri gisa.</p> <p>Jarduera honek zentroko hondakinen sailkapena hobetzea ekarriko du, baina horren helburu nagusia egungo egoerari buruzko kontzientzia eta azterketa egitea da. Ez da hain garrantzitsua izango azken produktua, baizik eta begiradan aldaketa bat sortzea, begirada kritiko eta analizatzaile berri bat lortuz, guztien onaz arduratzen dena.</p>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Azken produktua ebaluatu dezakegu, baina garrantzitsuena gaiari buruzko hausnarketa ona egon den aztertzea izango litzateke.		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
Kartelak sortzeko kartulinar eta errotulagailuak. Astean zehar sor ditzakegun hondakin multzoa.		Talde handian eta talde kooperatibo txikietan.	

JARDUERA 5		ZERTAN LAGUN DEZAKEGU?	
<b>Saio kopurua</b>	1	<b>Arloak</b>	Natur Zientziak, Gizarte Zientziak, Tutoretza, Hizkuntza
<b>HELBURUAK</b>	<p>O1. Proiektu bat diseinatu eta azken produktua eraikitzea, hezkuntza-komunitateko kide diren helduen laguntzarekin.</p> <p>O2. Lan-testuinguru eta-talde desberdin edo berezietara egokitzea</p> <p>O3. Lorpen pertsonalak eta taldekakoak ospatzea, eta prozesuak ebaluatzea</p>		
<b>DESKRIBAPENA</b>	<p>Aldez aurretik landutako guztiaren ondoren, egokiena 1. jardueran egin ziren pentsamendu-errutinetako fitxak berriro hartzea egokia izango litzateke. Horrela ikusi ahal izango dugu ikasleek prozesuaren ondoren pentsamendu bera idazten jarraitzen duten edo laugarren puntuan (ekialdea) egin zuten proposamenetakoren bat aldatuko luketen.</p> <p>Proiektuaren amaierarako familien edo/eta hezkuntza-komunitateko beste kide batzuen laguntza beharko dugu. Gure proposamena da elkartasun kanpainaren astean gauzatzea eta kanpainako egun handian ere kokapen bat izatea.</p> <p>Jarduera honek bi zati ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1- Eskala handiagoko helburu komun handi bat proposatzea eta aurrera eramatea. Gure ingurunearen egoera ikusi eta aztertu, eta nola zaintzen dugun aztertu ondoren, herri mailan aldaketa bat egitea izango litzateke asmoa. Hainbat ideia uzten dizkizuegu, berriak erabili edo proposa daitezkeenak, eta ahal izanez gero burutu daitezkeenak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugikortasunaren egun/ aste bat antolatzea eta ikastetxera oinez edo bizikletaz, patinez... joatea animatzea.</li> <li>- Herri mailan aldaketa baten beharra ikusi badugu, udalari idatzi bat egitea aldaketa honen proposamenekin.</li> <li>- Bidexka, mendi, erreka eta abar garbitzeko jardunaldi bat antolatzea.</li> <li>- Uraren eta argiaren kontsumoaren inguruan sentsibilizatzea ikastetxean, eta txorrita edo interruptore bakoitzaren ondoan sentsibilizazio-kartel txikiak jartzea.</li> <li>- Zailagoa bada ere, ahal izanez gero, zuhaitz landaketarako jardunaldi bat antolatzea.</li> <li>- ...</li> </ul> </li> <li>2- 1. puntua egin den edo ez alde batera utzita, kanpainan zehar egindako lan guztia museo moduko batean erakutsi dezakegu, eta familiei erakutsi, egindako zerbitzuan izandako ikerketa eta arrakasta erakusteko.</li> </ol> <p>Azkenik, lan horren bideoak eta jaiaren irudiak egitea gomendatzen dugu, ikastetxeko sare sozialetan zabaltzeko.</p>		
<b>EBALUAZIOA</b>	Jardueran erakusten duten inplikazio-mailaren eta lanerako jarreraren arabera ebaluatuko da jarduera hau		
<b>MATERIALAK</b>		<b>TALDEAK / PARTE-HARTZAILEAK</b>	
Aukeratutako jardueraren arabera aldatuko dira.		Talde handia, eta talde kooperatibo txikiak	